

Nere aitatxi Seberiano Almandoz, Urdazubikoa da. Hirurogeita hemeretzi urte ditu, eta bere bizia kontatu behar du.

.- Kaixo aitatxi Seberiano; badakit zure bizitzan zehar hainbat momentu bitxi eta latzak pasatuak zarela; horregatik nahi nuke elkarritzeta honen bidez, zure bizimodu hori nolakoa izan den pixka bat sakonduz, zure berri hobeki jakin. Hasiko gara:

Noiz sortu zinen eta non?

.- Ni sortu nintzen veintiunoan; veintiuno de febrero 1921

.- Eta non?

.- Bertizarana Oierregi, Ayuntamentu Narbarte.

.- Eskolan noiz hasi zinen?

.- Eskolan asi nintzen ni gero etorri ginclaikan, bortz urte nituelaikan, etorri ginengoi; Bertizaranatik, en Arraioz-ko baserri batera: "Beltzuri-ko borda-ra" bortz urtetan; eta eskolan asi nintzen ni zazpi-zortzi-beatziz urtetan, urte pare batez izan nintzen. Neguen, etzen eskolik izaten an "udeen" neguen baa!. Deus ez genuen ikasten. Eta gero bazien ikazkinak eta ibiltzen zirenak denboretan, baginen bi anaiak, bertzea zarragoa zen ni baino bi urte; eta ibiltzen ginen ikaztegian ta an ikusten ta, ikaztegia baigenuen afiziona, ola. Ta gero, eurketan aitzen ginen, Elizondora gaten genituuen curra, bi astoekin, eun guziz; eta kartzen ginuen etxeko familiko ogie (lau ogi): bi asto karga currekin, ta ola gure denbora; an lancan, ez ginuen pilotik eta bertze jostetako "zea" antxe, lanean; aunitz ez genuen iten bainan iten al ginuena, olaxen gure bizia.

.- Non egin zenuen soldaduxka?

.- Soldaduxka in nuen Afrikan ta ni naiz kinte, kuarenta y dos-ekoa; Maiatzean gan ginuen soldadu, maiatzan lenean, lenbiziko egune edo bian, ez dakit zer tzen ola, lenean eta gan ginuen Afrikera.

.- Eta...?

.- A zaude, gero, gero Afrikera gan ta gan ginen trenean, bagon zahar batean, berroteita lau euskaldun eta lau español, erdaldunek alo. Erdaldunek in zakuten, kanpotik bagon zarrari etsi atea ta an gelditu ginen zerean ta gure lagun batek in tzuen, an bazuen zerbait ziloa, zilotik autsi berri zeta eta kanpora atera ta kanpotik ateak edeki (ta olako zera batzuk). Eta tren artan ginuen lo iteko, ez oatzeik ez, lastoa pixkat, mandoiteko klasean bota ta an iten ginuen kuluxke; gero gan ginen Alkezira ta andik Tangerre barkoan; ta barkoan ta gan ta an in tzakuten ilea moztu ta dutxetu eta arropak

artu ginituen, militar arropak an ta gero paisano arropek enpaketatu, entregatu ginituen ta gero... entregatu ginituen eta amak ia zertako enituen arropak ekarri, bordara! Ta ondatu nituela eta aserre man tzaten. Ta gero, torria nitzen permisoekin, (ez dut akitzen baina igual da) permisoekin ta kapitanai galdein nion permisoa, aspertue nintzen soldaduan eta ez lizentziatu; torri nintzen permisoekin setienbre edo otubre ola zen; ta man tzaten permisoa zaude ... (ta , puta naasten bai naiz).

.- Eta, zenbat denbora pasatu zenuen?

.- Zaude..., gero tartean in zen, gure kinte lizentziatu, eh! Permisoa mantzaten ta ai nintzen anaiakin arbol botatzen, aritz botatzen, tarte ortan in tzen gure kinte lizentziatu ta ine ginuen medikuengandik zertifikadua atera pulmoniarekin nindoala berriz luzetzeeko zera, bertze egun batzuk ta tarte ortan in tzen gure kinte lizentziatu eta in tzaten Afrikatik telegrama biali, inmediatamente presentatzeko ta nere kinta unera, etxera ta ni gan nintzela, bakarrik Dominu Saindu eunean Afrikera, lizentzia bilera, Dominu Saindu eunean nahi zuen gaatea ta ni berriz ezetz, paisano arropean ibiliko nitzela, bertze disiplina aundiak zela eta nik te atorra makutsik gan nintzen.

.- Zenbat denbora pasa zenuen?

.- Iru urte terdi.

.- Zerbait kontazeko baduzu hangoa?

.- Eh angoa?... bai, gauz bat baut, baita bat baino geiau ere, bai ta gero galdein tzaten kintetan gan ta: ze ofiziotako ginenean nik "karpintero", bertze aunitzak "labrantza" ta ola. Karpinteroa (gero bazen), karpintero bat, treintaisieteko kintoa, zona rojakoa ta zaar bat, urte bat edo urte terdi pasatu zen uré, arrek iten zituen ango lanak eta uré lizentziatu zelaikan, ni sartu nintzen an; ta ni karpintero erran nuen baina enitzen cundaiño "izenan", afiziona bai gustoan. An nuen kuartera genuen, (zera) azpian sorailua, bero aundiak iten zituen ta pozal-ka ura botatzen geneun, erregatzen ta in zien autsi, iten ginituen tapatu, ni aitzen tapatzen ziloak ta gero (kapitana), urte terdi pastu nuen deuse, despiste lancan, deuse in gabe. Gero kapitana in tzen kanbiatu, berrie ta brigadak erten nau: ate zaar bat kristal autsia beizen, aspaldian kristel ure patzeko, sosa galdeiteko, zenbat behar nuen? Ta galdein nion ta kristel berria patzen hasi ta autsi in nuen, cundaiño kristela patzeko. "¿Tu eres carpintero?, ¡ Tu eres una mierda!" "Di, dau", sableakin yo nindauen. Ta berriz karraazi zitela, kristela ta berriz patzeko, mantzaten sosa ta karri nuen kristela erosita, gero ure patu nuen, enuen autsi. Geroztik ez dut kritelik autsi; gero solasean asi, urte bat gan zela eta egoten ginenean solascan elgarrekin, bazen bertze adixkide bat ere nere ondoan, guarda zibilekoa, bazen zurgintzia ttiki-ttiki kuarto ttall bat ta guarda zibilen ondoan adiskide ginela an solasean brigade ure... "ese puñetero no sabia nada, pero ya ha aprendido eh!"... ta solasak ibili zituela ta ibili ginituela"no tienes escuela pero eres mañoso". Brigadak ola erran

zituela. Ta gero bertze ixtoria, aunitz gauza ere bai, bainan bertze gauz bat, gaten ginela belarketa mandoekin Afrikan ta baziela leenago belarra mozten zela, iiteiak baziela leanago, ogie pikatzeko bezalako iiteia makur batzuk ekin belarra moztu ta mandoendako, kanpotik nunbaite markatu bear ginucla ta bagimazile, laranjak ikusi ginituela bide bazterrean, ("bazuen zerritik pixkat"), "mekaguén" andaluza ta biek laranjari beina eta "mekaguén" ta nik artuko nituela laranjak, ta sartzen naizela zerrakuran barnean (orain baino zauliago nintzen bai) ta beire beire moro, kito zahar bat, makil audi batekin, salto in ta eskapatu nitzen, "i i i uyuke" ta ure bere makilekin krixton bidea kurritu zuen...

- Han, Afrikan, izaten al zenituzten zorriak?

- Zorriek? Bai, ta gero, maniobretan ibiltzen ginen, ta gan ginen aldi batez Laratxera, lau ilabete pasa, kupoa dena, regimientoa an ginucla, Laratxen, gauaz, gau erditen, ze tenoietan ez naiz oroitzen, au in ginen gelditu, pauza, ordu pare bat o bizpiru, egon ginen, lo inginuen, etzanta lurran gainean, ez bait zuen urie iten sekulan eta animalcko beroa beti ta andik partitu ta geen pieza guziekin Laratxera, sekulako azkaleak eta atsikiek ta "ze puta" zen tugu, zorriek edo zerbaitue, ez ni, ni bezala denak; Laratxera ailegatu ta kuartelera sartu ginela, ta kuarterean ez ginucla guatzeik, zolan zimenta ta lastoa, an edatue, lasto pixket, an ainarrazko isetsekin, ta an krixton zorriek, audi beltz batzuk, au kaskaka, animaleko asotsa izaten zuten iltzean. Olako batzuk.

- Han hasi al zinen zurgintzan?

- Zurgintzen bai, asi nitzen zerean Afriken, orduen asi nintzen, kuartel artan, hasi zien leku batcan, sartu nintzen karpintero ta gero pasatu nuen gainerako soldadukoa dena, rebajatua, serbizio guzietan.

- Handik etorri ta nora joan zinen lanera?

- Andik torrite? andik torrite, Iratire ta emen lancan etxean, emen arbol botatzen ta iketza ta ola, gure bizie beti.

- Zer jaten zenuten?

- Ah! Orduen etzen txuletik eta yaten, orduen yaten zen zera, "baba", goizetan yeiki ogie utse ta ardo tragoa zatotik, eta gosaltzean baba, kanpoan urie ederra ai baldin bazuen, mendien Iratin ta oietan, au etzen "yeuse" lehorrik, autxe, ta ala, fuentetik koadrila batek bueltan yarrite ta eguerditen baba, atsetan baba ta ogie, ogie, orduen gerra ondoan etzen ogieko. Ogi beltz batzuk eta ba, orduen etzen oain bezala, ta lana berriz, lana berriz, goizetan lanean asi argie argi edekitzena ta ilundu beltz tuartion, ilunduartion, izarretn asi ta izarretan geldi, iten nitzen...

Mendien eta an aizkora eta arpanekin arbolak bota ta adarrak kendu ta egur lanean... cta.

- *Tailerra noiz montatu zenuen? Tailerra.*

- Nik tallerra montatu nuen gero, Frantzien cta ibili nintzen, ni oianean, ta nik tallerra montzeko orduko banituen ogeita amalau urte, enitzen ikasten inon ibili.

Bueno, hau izan da nire aitatxiren bizimodua edo gazte denborako kontu aipagarri batzuek. Bere tailerra montatu zuen ezkerotik jubilatu arte eta ordutik onera, bizimodu nahiko normal bat eraman du (bere gazi gozoekin) bainan gazte denborako horrelako kontu batzuek izan dira, bere burutan grabatuta gelditu direnak sekulako.

IRATI AROZENA ALMANDOZ

Aitatxi: Seberiano Almandoz
Adina: 79 urte
Izena: Irati Arozena Almandoz
Adina: 12 urte
Maila: D.B.H. 1
Helbidea:
Irati Arozena Almandoz
Idoia auzoa 2-lezk.
31754 Goizueta
(Nafarroa)
Ikastetxea: Andres Narbarte "Xalto" Eskola Publikoa.